

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan heziketa fisikoaren bitartez ikusmen urritasuna duen ikasle baten inklusioa sustatzeko ikerketa baten azterketa

Autor: Garcia Pesquera, Ibai (Grado de Educación Primaria, especialidad Educación Física, Maestro de Primaria y de Educación Física).

Público: Profesores de Educación Física. **Materia:** Educación Física. **Idioma:** Euskera.

Título: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan heziketa fisikoaren bitartez ikusmen urritasuna duen ikasle baten inklusioa sustatzeko ikerketa baten azterketa.

Resumen

Artikulu honetan ikerketa kualitatibo baten emaitzak aztertuko dira, ikusmen urritasuna duen ikasle bati ematen zaion erantzuna ezagutzeko. Ikerketa horretan bi saio proposatzen dira inklusioa heziketa fisikoan ematen den ezagutzeko eta bere oinarritzko helburua ur-jardueretan diharduten heziketa fisikoko ikasleekin inklusibitatea bultzatuko duen egoera eragitea da. Artikulu hau ikerketa horren emaitzetan oinarrituko da batez ere, ebaluazioko eta metodologiako egokitzapenak aipatuz. Emaitzak aztertu eta konparatu eta gero, ondorioak zehaztuko dira, aurretik bildutako informazio guztia baieztatuz eta ikerketaren eragina eta garrantzia hezkuntza mundura plazaratzeko asmoz.

Palabras clave: Inklusioa, hezkuntza premia berezia, ikusmen urritasuna, heziketa fisiko, Derrigorrezko Bigarren hezkuntza.

Title: Analysis of a research in which they search the inclusion of a vision impaired student in High School through Physical Education.

Abstract

This article focuses on the results of a qualitative research to prove that a vision impaired student is being included in a High School classroom. The research proposes two lessons to provoke the inclusion in a specific class where a vision impaired girl was not included before. Finally, the results will be analysed and it will make some statements reassuring information provided from other authors and stating new data for future research and to give evidence of the importance of this research to other professors.

Keywords: inclusion, vision impaired student, Physical Education, High School, educational especial needs.

Recibido 2018-01-26; Aceptado 2018-02-05; Publicado 2018-02-25; Código PD: 092085

SARRERA

Inklusioa pil-pilean dagoen afera da. Egunero honi buruz ehunka albiste, dokumentu eta ikerketa argitaratzen dira baina hala eta guztiz ere, ez da argi gelditzen zein den ikasleen aniztasunaren beharrak asetzeko estrategiarik egokiena.

Horrela, (Pesquera, I. G, 2015) "Bigarren hezkuntzan heziketa fisiko inklusiboa sortzen hasteko proposamena"ren bitartez, inklusioaren alderdi espezifikokoak eta praktikoak plazaratzeko aukera izango da. Ikerketa honetan inklusioaren bilakaera eta onurak aztertzeaz aparte, eskuhartze didaktiko bat proposatzen da. Hala nola, ikusmen urritasuna duen pertsona oinarrituta saio inklusiboak burutzea, gelako programazioari dagokion edukiak atzeratu gabe eta prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko helburuak betez. Ikaslea 15 urteko Zuriñe izeneko neska bat da.

ESKUHARTZE DIDAKTIKOA

Esku hartze didaktikoa planifikatzeko Heziketa Fisikoko saioetan dauden klase orduak kontuan hartuta bi saioko unitate didaktikoa osatzea erabakitzen da.

HELBURU OROKORRA:

Ikerketaren helburua ikusmen urritasuna duen ikaslearen oinarrituta **saio inklusiboak burutu**, saioaren gelako programazioari dagokion edukiak atzeratu gabe eta prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko helburuak betez, berari egokitutako programazio bateragarria aurrera eramaten.

Hauek dira ikerketaren helburu espezifikoak:

Ikusmen urritasuna duenaren **autonomia garatu**, igerilekuaren instalakuntzen familiarizazioa burutuz.

Beste **ikasleengan enpatia garatu** ikusmen urritasuna duen ikaslearekiko, eurek ere bere azalean “ikusmen urritasuna” pairatuz.

Edukiak betetzea: **Crawl** igeriketa estiloaren beso eta mugimendu teknika ezagutu eta landu.

APLIKAZIO ETA EGOKITZAPEN METODOLOGIKOAK

Erabiliko den irakaskuntza estiloa inklusioa izan behar du helburu, hezkuntza ikasle bakoitzaren beharretara egokituz eta guztiak guztiekin arituz. Kasu honetan ikusmen urritasuna duen ikaslearen premietara egokituko ditut bere kideekiko parte-hartzea suztatuz.

Saioak **igeriketaren hastapenean** kokatzen dira. Ikaslea ur-inguruetan ibilia da, hau da, uretako oinarritzko trebetasunak ikasteko fasea gainditu du eta orain igeriketa estilo eta teknika desberdinak ikasteko fasean dabil. Ez du instalakuntzak ezagutzen, beraz, instalakuntzen familiarizazio prozesua igaro behar du.

Saioetan burutu beharreko egokitzapenak ikusmen urritasuna duen **ikaslearen inklusioa sustatzeko** bideratuta dauden arren, egokitzapenak ez dira asko izango. Izan ere, plantetatuko heziketa-saioak urritasunik ez dutenen antzekoa da. Igeriketa estiloetan oinarrituta, igerilari guztien antzera, metodo, ariketa eta programa berdinak erabiliko dira. Hau da, ikusmen urritasuna izateagatik **ez du programazio didaktiko desberdina jarraituko**. Hala ere, egokitzapen zehatz batzuk burutu behar dira kolektibo honek dituen premiak direla eta. Horretarako baliabide material osagarriak eta giza baliabideak erabiliko dira. Gure kasuan **gidariak izango dira giza baliabideak**. Modu batean saioa egokitzen da, eta ez ikaslea.

Gidariak saioan zehar funtsezko baliabideak bilkatuko dira ikusten ez duenari zuzenketak eta argibideak emateko, batez ere saioen hasierako **instalakuntzen familiarizazio prozesuan** zehar. Familiarizazioa egiteko 3 ariketa burutuko dira instalakuntzen espazio desberdinak ukitu, entzun eta sentitzeko. Honekin autonomia garatzea bilakatuko da.

Material batzearen afera puntuak lortzeko beste aukera bat izango da. Hala ere, saio bakoitzean ikasle desberdinak izendatuko ditut materiala hartu eta batu dezaten. Zuriñek honetan parte hartuko du biltegia non dagoen jakingo duelako aurretik landutako familiarizazio prozesuaren bitartez. Autonomia eta inklusio sustatzeko aukera bikaina da

Saio hauen metodologia orokorra **ikasle bakoitza gidari batekin** ipintzea izango da. Horrela, ikasleek ikusmen urritasuna zer den baloratuko ahal izango dute eta Zuriñeren egoera bizitzeko gai izango dira. Gidaria irakaslea, edo PT bat izan liteke baina kasu honetan ikasle bat izango da boluntario. Saioan zehar bikotekideak rolak aldatuko dituzte (Zuriñe eta bere bikotekidea izan ezik), bata itsuarena eginez, bestea ordea, gidariarena. “*Itsuek*” betaurreko opakuak eramango dituzte benetako itsutasuna antzezteko. Zuriñerekin parekatuta dagoen ikaslea saioan zehar desberdina izango da, horrela ikasle hark ere itsuarena egiteko aukera izango du.

Klaseen programazioaren prozedurazko helburuak bete ahal izateko feedbacka eta komunikazioa metodologikoki zainduko dira. Batetik, ikerketak dioenez, crawl teknika eta biraketa arruntaren irakaskuntzan ikusmen urritasuna duen ikaslea irakasleak eskaintzen dion **feedbackaren** arabera aurreratzen doa (Noguerol, 2007). Metodo honen arrakastarako HPBlekin irakasle-ikasle **konfiantzazko harremana garatzea eta motibazio pizgarri handiak eskaintzea** ezinbestekoa izango da. Hau ariketen prozedura bitartean burutuko da momentu oro. Feedbackaren estrategia burutzeko, hitz batzuk sortuko dira mugimendu espezifiko batzuk izendatzeko. Azkenik, beti izango dugu kontuan igerilekuan segurtasuna (arauak ezarriko dira kaleetan igeri egiteko). Bestetik, **komunikazioa** ikusmen urritasuna duten ikaslearen metodologian zaindu beharreko elementua da. Ikusmen urritasuna duen ikaslearen informazio hartzeko baliabide nagusienak entzumena eta ukimena direnez funtza didaktikoak zentzumen horietan oinarrituko dira. Izan ere, ikusmen urritasuna ez da ikaslea mundutik isolatzen duen elementu bakarra, baizik eta ukimena, entzumena eta kinestesiarekin lotuta dauden pizgarrien falta, hain zuzen. Ur-ingurunean prozedurazko edukiak transmititzeko bideak bilatu behar dira ukimena eta azalpen argi

eta motzen bitartez. Besteak beste, ariketaren prozedura eta arrazoiaren azalpenak adieraztea, soinua eragiten duten laguntzak burutzea (txaloak, txistuak...) igeriketa erritmoa ikas dezan eta gidariaren laguntza fisikoak izatea. Kinestesia erabiliz Zuriñe izango da irakaslearen azalpenak fisikoko adieraziko duena (irakasleak besoak eta hankak mugituko dio azalpenak adieraztean).

Oso klase motzak direnez nire estrategia nagusienetariko bat **geldialdiak ekiditea** da. Hau da, ikasleak ez dira eserita egongo edota ezer egin gabe egongo. Geldirik badaude irakaslearen azalpenak entzuteko besterik ez da izango. Honek esan nahi du **alde zurretik planifikatutako saioak** ekarri behar direla. Bikote lana izango denez eta rol aldaketa dagoenez, saio hasieran esan behar diet denbora ez galtzeko betaurreko aldaketan. Kontuan hartu behar dogu klaseak oso motzak gertatzen direla eta denbora aprobetxamendua oinarritzkoa dela.

PROPOSAMENERAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Unitate didaktikoa ebaluatzeko aurrez erabilitako irizpide berak erabiltzeaz gain behaketarekin erabili ez diren beste hiru irizpide ezarriko dira programazioaren helburu eta edukiak betetzen diren jakiteko:

- **Mugimendu egokiak** burutzen ditu.
- Beste ikasleak baino **lehenago amaitzen du ariketa**.
- **Gidariaren arauak betetzen** ditu.

EMAITZAK

Unitate didaktikoan zehar aurretik aipatutako ebaluazio irizpideak erabili dira saioaren inklusibitatea ebaluatzeko. Ebaluaketa horretan ateratako emaitzak oso adierazgarriak izan dira. Lehenik eta behin inklusioa ebaluatzeko taulan (Taula 3) zer nolako datuak atera diren aztertzeraz goaz:

Taula 3. Inklusioaren azterketaren emaitzak

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	BEHAKETA EMAITZAK	EMAITZAK	
		1 SAIOA	2 SAIOA
Zuriñek bakarka burutzen dituen ariketa kopurua.	8/8	0/10	0/10
Beste ikasleekin konparatuta Zuriñek burututako ariketa desberdin kopurua.	7/8	0/10	0/10
Taldekideek burutzen dituzten ariketa mota bera lantzen du Zuriñek	EZ	BAI	BAI
Ariketak burutzerakoan, Zuriñe zenbat ikasle kopuruarekin harremanetan egon da.	2	6	10
Zer nolako aginduak jasotzen dituen irakaslearen partetik. Agindu desberdinak jasotzen dituen edo ez ariketa bakoitzean.	Ez. Agindu bakarra saio osoan.	Bai. Ariketa bakoitzean agindu desberdin bat	Bai. Ariketa bakoitzean agindu desberdin bat

Lehenengo irizpideari hasiera emateko, jardueraren analisiari ekingo diogu. Zuriñek **ez zuen bakarka ariketa bat ere ez burutu**. Saio bien ariketetan zehar binakako taldekatzea ezarri delako hain zuzen. Aldageletatik igerilekura eta saioaren amaiera arte ikasle bakoitza bere bikotearen gidari bilakatu da.

Bigarren eta hirugarren irizpideei erreparatu, Zuriñek **klase kideen ariketa kopuru eta azalpen berberak** jarraitu zituen, inolako salbuespenik gabe. Planteatutako 10 ariketak pertsona ororentzako berdinak izan ziren eta Zuriñek ariketa mota berdinak burutu zituen.

Laugarren irizpidearen arabera ateratako datuak **10 pertsonekin harremana** izan zuela aitortzen dute. Harreman hori saioan zehar izan zuen kontaktu sozialari erreparatzen dio, hala nola, ariketa batetik bestera dauden atsedenetan izandako harremanak, irakaslearen azalpenak egiten diren bitartean izaten duen harremanak edota ariketaren gauzatzearen bitartean ematen diren harremanak. Harreman mota desberdinak izan zituen. Alde batetik elkarri zirikatzen ibiltzen diren harremanak eta bestalde, harreman lagunkoiak, berari laguntzeko prest zeudenak hain zuzen. Mutilak zein neskekin izan zituen harreman horiek. Aipagarria da esatea bigarren saioan lehenengoan baino harreman sozial gehiago mantendu zituela.

Azkenik, ariketaren azalpenak eta aginduak berdinak izan ziren saio guztian zehar, salbuespenik gabe. **Ariketa bakoitzeko zeregin desberdin bat** izan zuen bere kideek bezalaxe. Bere kideekiko desberdintasun bakarra feedback gehiago jaso zuela esan beharra dago. Izan ere, hau funtsezkoa da bere gorputz irudia garatzeko eta kinestesia lantzeko.

Esan bezala, inklusibitatea ebaluatzeko fitxaz aparte **programazioaren helburuak betetzen dituen jakiteko beste ebaluaketa** mota bat egin zaie. Honen arabera crawl teknikaren mugimenduak ezagutu eta era egokian egiten dituen, eta gidariaren arauak betetzen dituen ezagutuko da (taula 4).

Taula 4. Programazioaren helburuekin aurreratzen doan ebaluazio taula.

	1 SAIOA	2 SAIOA
Mugimendu egokiak burutzen ditu.	Bai	Ez
Beste ikasleak baino lehenago amaitzen du ariketa.	Ez	Bai
Gidariaren arauak betetzen ditu.	Bai	Bai

Egia esan **crawl besoen mugimenduetan** nahiko eskas aritu da ez zituelako ondo koordinatzen besakadak. Bi saioetan ez du teknikaren exekuzio maila egokia burutzea lortu baina beste ikasle batzuek ezta ere. Izan ere, crawl teknika lantzen duten lehenengo aldia da eta mugimenduak nola egin jakitea zaila da. Hala ere, teknika hobetzen joan da nik eta gidariak eskainitako feedbackaren bitartez bigarren saioa gauzatzeko.

Biraketen kontuan gauzak ere gaizki irten ziren. Izan ere, ez zuten aurretik biraketa arrunta praktikatu eta nahiko txarto egin zuten. Distantzia era desegokian hartzen zuten ohituta ez zeudelako eta beldurrarekin aritu ziren. Besakadak zenbatzea eskatu nien baina hala ere distantzia txarto neurtzen zuten. Zuriñek zenbatzean primeran hartzen zuen distantzia baina hurrengo mugimenduak gaizki bere kideak bezala. Biraketen ariketan gidariak jakinarazi behar zieten itsuei noiz besoak luzatu horma ukitzeko eta biraketa arrunta burutzeko. Hala ere biraketaren teknikan pare bat ariketa sartu nituen ez nuen espero kontu honetan hobekuntza askorik baizik eta ezagupen orokorra izatea.

Dena den, ikerketa kualitatiboa ez da esku hartzean egindako behaketan bukatu. **Bigarren helburuarekin lotuta** Zuriñerekiko enpatia garatu den jakitea falta zitzaidan. Horretarako, Zuriñeren ikaskideekin mintzatu naiz jakiteko esku hartzea egin eta gero, zer nolako ikuspuntua duten ikusmen urritasunaren inguruan.

ZAILTASUNAK ETA IRTENBIDEAK

Unitate didaktikoaren gauzatzean aurkitu ditudan arazo edo zailtasunen artean **denboraren kudeatzea** izan da.

Feedbacka ematea denbora guztian besteetan hainbeste arreta ez jartzea eragiten du. Horregatik beste irakasle baten laguntza beharrezkoa izango litzateke.

Bestetik ikusmen urritasuna duen ikasleak **koordinazioan zailtasunak** zituen ariketak burutzerakoan, asko kostatzen zitzaion zenbait ariketa egitea. Besteek baino denbora eta saiakera gehiago behar zituen ariketetan mugimenduak ondo gauzatzeko.

Espazioaren kudeaketa beste zailtasun handi bat izan da, beste klaseetako saioak gauzatu direlako aldi berean. Baita kortxerarik ez ipintzea ikasleek norabide arazoak izan dituzte. Agian kortxerak erabili beharko genuke hurrengo saiakeran.

ONDORIOAK

Esku-hartzea burutu eta gero eta emaitzaren arabera, esan dezakegu, inklusioaren arrakasta aurretik planifikatutako lanean bermatzen dela esan dezakegu, hau da, **metodologia eta saioen antolaketa dira irakaskuntza inklusiboa bermatzen** dutenak.

Lehenengo helburu nagusiari erreparatuz, ikusmen urritasuna duen ikaslea besteekin izandako harremanak eta besteen antzera, ariketa berberak egin ahal izatea, aurretik aipatutako **HFko jarduera inklusiboan onurak** nabarmendu eta baieztatzen ditu (Kasser, 2003; Kodish et al., 2006; Shanker 1994). Lan honetan izan ere, esku hartzearen ondoren ikusmen urritasuna duen ikaslearen eta beste ikasleen arteko **harremanak areagotu** direla ikusten da eta Shankerrek (1994) aipatutako onura sozialak bermatzen dira honen bitartez.

Deigarria da ere, nahiz eta saioak ikusmen urritasuna duen ikasle batentzako egokituta egon, **programazioari dagokion edukiak** ez zirela atzeratu eta prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko helburuak orokorrean bete zirela. Bigarren ebaluaketa fitxan ikusten dugunez (taula 5) mugimendu egokiak ez zituen burutzen baina gidariaren aginduak betetzen zituen eta uretan bizkor ibiltzen zen. Beste kide batzuk egoera berdinean zeuden. Esan beharrekoa da prozedurazko helburuen artean crawl teknikaren lehenengo kontaktua zenez ez zaiela asko exijitu. Berdin bigarren saioa biraketa arruntarekin.

Esan genezake, ikasleek programazioaren edukiak eta helburuak betetzen jarraitzea lortu dela. Bete egin eta gainera **errendimenduaren aldetik aurrerapenak egin dituzte ikasle orok** autore askoren esanak baieztatuz, Nobrek (2009) bildutako lanetan aipatutakoak hain zuzen (Block eta Obruniskova, 2007; Block eta Zeman, 1996 eta Vogler, 2000).

Ilido berean, beste ikerketan ikusten zen bezala (Block, 1995 eta Houston-Wilson, 1997) **HPB duten ikasleetan inklusioaren bitartez errendimendu eta ikaskuntza motorra hobetzen** dela baieztatu du lan honek. Horrelako saioen bidez ikusmen urritasuna duen pertsonarekiko hurbiltasuna sustatzen dela onartu genezake, Kodish, Kulinna, Martin, Pangrazi eta Darstek (2006) ikerketari erreparatuz, ikasleriak HPB duten ikasleen inklusio prozesuak baloratzen dituenaren ondorioa atera zutenean.

Kideak errespetu gehiago erakusten dute. Horrelako unitate didaktikoak sarritan aurrera eramaten badira eragiten diren ondorio sozialak oso onuragarriak dira. Ikusmen urritasuna duen ikaslea bere kideen modukoa sentituko da, errespetatua sentituko da eta gainera bere gaitasun soziala garatuko da, adin hauetan oso garrantzitsua den edukia, hain zuzen.

Ariketa gehienak orokorrean bere klase-kideak baino azkarrago bukatu ahal izatea, ikusmen urritasuna dutenentzako **ur-jardueren garrantzia eta onurak** azpimarratzen ditu ere (Lopez, 2003). Teknikan arreta gehiago jartzen da. Esan genezake ikusmena teknika egoki egiteko funtsezkoa ez dela eta pixka bat oztopatzen duela. Izan ere mentalki iruditzen da gorputz eskema eta azkeneko hau garatzen da ere.

Azkenik, Ainscow eta beste batzuk (2006) parafraseatuz, **eskola inklusiboa kalitatezko hezkuntza eskaintzen** duena izango da, aukera berdintasuna ikasle orori eskainiz. Lan honen bitartez lortu dena hain zuzen. Hala eta guztiz ere, HPBlen HFko saioen aurrekariak patxadaz aztertuz (non bazterkeria maiztasunez burutzen zen), berehala konturatuko gara lan honetan burututako bi saioetako dinamikaren bitartez inklusioa irabazle dela eta guztiok irabazle bilakatzen gara.

Aztertutako emaitzen arabera esku hartzearen **helburu nagusia lortu egin dela** esan dezakegu: ikusmen urritasuna duen pertsonan oinarritutako saio inklusiboa burutzea. Zuriñek ariketak era egokian burutu ditu eta gustura egon da izan duen gidariarekin. Izan ere, behaketan ateratako datuen arabera saio osoan bi ariketa desberdin egiten zituen bakarka, beste kideetatik isolatuta. Hau guztiz aldatu da proposatutako unitate didaktikoaren eraginez.

Aztertutako datuekin erraza da aho batez esatea HFko saioetan saio inklusiboak lantzea posiblea dela.

Bibliografía

- Ainscow, M. (2001). *Desarrollo de escuelas inclusivas: ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares* (Vol. 84). Narcea Ediciones.
- García, J. I. eta Cañadas, D. P. (2009). La formación de ciegos y discapacitados visuales: visión histórica de un proceso de inclusión. In *El largo camino hacia una educación inclusiva: la educación especial y social del siglo XIX a nuestros días: XV Coloquio de Historia de la Educación*, Pamplona-Iruñea, 29, 30 de junio y 1 de julio de 2009 (453-462 or). Universidad Pública de Navarra.
- Gomendio M. eta Sesma, J. (2012) *HF inklusiboa bigarren hezkuntzara egokitua*. Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena.
- Hernandez, M. R. (2005) *La educación física como elemento socializador en la inclusión del alumnado con discapacidad motriz. Estudios de casos en la etapa de educación primaria*. Universitat de Barcelona. Barcelona
- Hernández, M. R. (2009). *La inclusión en el área de Educación Física en España: Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. Ágora para la educación física y el deporte*, (9), 83-114.
- Lopez, A., (2003, martxoak) Los invidentes y la natación. *Revista Digital Efdportes*, Buenos Aires, 8. urtea, 58. zk. (<http://www.efdeportes.com/efd58/invid.htm>) (2015 apirilaren 1an kontsultatuta)
- Martinez Duarte, M. (2001, apirila) El profesor de apoyo y la integración en las clases de educación física. Una experiencia con alumnos/as con N.E.E, *Revista Digital Efdportes*, Buenos Aires, 7. urtea, 35. zk. (<http://www.efdeportes.com/efd35/apoyo.htm>) (2015ko martxoak 20an kontsultatuta)
- Noguero, P., Canca, D., Sanchez L. Canales, J., Garcia, A., Lopez, V eta Jimenez, M., (2007) Adaptación de actividades en el área de Educación Física (para niños ciegos integrados en clase). Alikante: Cefire Alicante
- Pesquera, I. G. (2015) *Bigarren hezkuntzan heziketa fisiko inklusiboa sortzen hasteko proposamena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa
- Sanz, D. eta Reina R. (2014) *Actividades físicas y deportes adaptados para personas con discapacidad*. Bartzelona: Paidotribo
- Vázquez, F. J. H. (2012). *Inclusión en educación física: las claves del éxito para la inclusión del alumnado con capacidades diferentes*. INDE Publicaciones.
- Villa, R. A. eta Thousand, J.S (1995). The Rationales for Creating Inclusive Schools. In R.A. Villa and J.S Thousand (ed) *Creating and Inclusive Schools* (pp 28-44). Alexandria :ASCD.